

TXIRRI TXOLA

11. ZENBAKIA 1994. EKO URRIAN BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

...AURREKOAREN JARRAIPENA

SAN MARTIN BASELIZA


Gure herriko basiliza hau Zubiaur-alde auzoan kokatuta dago; Basigo eta erreka aldearen ikuspegi eder bat eskeintzen dauan leku garai baten.

Jakina danez, Santu hau Santiagorako bideagaz lotuta dago eta bere aldeko zaletasuna, erromes frantsesak zabaldu eben gure inguruan, euren Konpostelanzko ibilaldietan. Eta Bakioko basiliza hau be, frantsesen eraginez sortuko zan zalantza barik, denbora zahar hareetan. Bertako urdebeinkatuaren ontziak daukan kontxa itxura dogu horren frogarik argiena, Santiago bidean, kontxak eta antzekoak non-gura agertzen jakuz eta.

Bakioko basiliza hau, aipatuta agertzen jaku dagoeneko 1.513. urtean, Mungiako eleiz-artxiboetan, kofradi bat osotzen eben hogeita hamar herritarren jabegoko eraikuntza bat lez.

Antzina, San Martin eguna, azaroaren 11ean, meza bategaz ospatzen zan. Eleizako ospakizuna amaitu eta gero, bertako kofradeak, ogia, gaztainak eta paitarra jaten eben anai-giro beroan, Goiti baserrian. Eta azkenez, erromeri bategaz amaitzen zan jai.

Gaur egunean be, San Martin eguneko urrengo zapatuan, meza bat izaten da bertan, eta horren ostean, jaki eta edarien gonbite ziurra dago inguru haretara urreratzen diran guztientzat, txistularien giro alaian. Horrez ganera, eta antzinako ohitureari jarraituz, urtean zehaz baselizeagaz zer ikusia daben arazo guztiak jasotzen dauzan "kontu liburua" irakurten da kofradikideen aurrean, hango barri guztiak izan dagien.



EDITORIALA

"Urak dakarrena urak darama" dio esaera zaharrak baina kasu honetan hobe letorkigu UDAK dakarrena UDAK darama esatea. Hortxe geratu dira udarako genituen asmoak eta berriz ere herria eraikitzeari ekin behar diogu. Ezin dezakegu esan uholdeak ekarritako guztia ustela izan denik. Euskera gehiago ere entzuten da udatiarrengan.

Baina negua! oh, negu luzea! Zuk ematen diguzu epe luzeagoa, zurekin lortuko dugu datorren udan euskaldunagoak izatea.

Aurrera!

EUSKERAREN JAI A ► URRIAREN 8an
ADI EGON ZAITEZ!

LIZARDIREKIN TOPAKETA

Gure aurrean herriko gazte bat, txikitatik itsasoan bizi izan dena. Olatuetatik hurbil jaioa eta olatuekin hazia, beraz olatuak irakurtzen dakiena:

*Olatu handiak eta txikiak,
goikoak eta behekoak,
bortitzak eta leunak,...*

Hau ez da beste inor Lizardi baino. Itsasoak berak eramana beste Herri batzuetara eta hainbat itsasertzetan murgildua.

- *Lehenengo galdera, Lizardi, derrigortua da. Nola sortu zen zuregan olatuak gairiditzeko afizioa?*
- Niri hondartza gustatzen zitzaidan eta bertan jendea olatuen gainean ikusita, kirol hau gustatzen hasi zitzaidan.
- *Zure senitartekoez izan dute zerrikusirik joera horretan?*
- Ez.
- *Lortutako esperientziak balio izan dizu zerbaitetarako?*
- Bai, olatuak eta itsasoa zer diren ezagutzeko balio izan dit eta bi eratako jendea dagoela jakiteko; alde batetik olatuak hartzen dakitenek eta bestetik inoiz olatuak hartzen jakingo ez dutenek.
- *Itsasoak beste jende bat ezagueraztera eraman zaitu. Nola beste horiekin harremanak?*
- Oso ondo. Jende atsegina aurkitu dut.
- *Itsasoarekin beste herri batzuk ere ezagutu dituzu. Nolakoak izan dira zure bidaiak, nolakoak beste herriak?*
- Bidaiak esperientzi onak izan dira nere bizitzarako, zeren Espainia, Frantzia, Portugal eta Eskoziako hondartza ugari ezagutzera eraman naute eta ere berean jende ezberdin ugari ezagutu dut pentsakera ezberdinekin.
- *Azal eazu pixkat oholaren teknika*
- Olatu bat hartzeko, behar den bakarra ohola eta "arraun egitea" da, eta olatuak eramaten zaituenean zutunik jarri.
- *Bakioko itsasoa ona omen da kirol horietarako? Zergaitik?*
- Bai. Olatuak urte osoan zehar har daitezkelako.
- *Afizioa gehiagotzen doa ala galtzen ari da?*
- Olatuekiko afizioa goruntz doa baina orain, olatuak hartzeko era ezberdinak daude surfaz aparte, hala nola MOREY, BOOGIE eta RAIDER-ak Kirol hauek ere hauta daitezke.



- *Ba al dago Bakion surf-talde bat egiteko erarik? Zer beharko litzateke horretarako?*
- Bai, badaude. Baina Udaletxearen eta olatuak hartzen duten jendearen laguntza beharko zen: Lehenengoak lokal bat jarriz eta bigarrenek talde hau onartzen eta bertan sartuz.
- *Badakigu ere, gazte talde bat dagoela itsasoko gauzekin bizi nahiko lukena (oholak egiten...) Hurrengo batetan TXIRRITXOLA beraiengana hurbiltzeko asmotan dago. Ba al duzu erlaziorik beraiekin? Ontzat jotzen dituzu beraien asmoak?*
- Bai. Erlazioa badaukat eta beraien intentzioak onak direla uste dut, zeren heuren nahi dutena afizioa gehintzea da, ohol gehiago saltzeko.
- *Bueno, Lizardi, eta bizitzak nola tratatzen zaitu?*
- Oso ondo. Oso pozik nago surfarekiko nire afizioak, oso handia da, eta gainera orain dela gutxi aita izan naiz.

Gure zorionik beroenak eta etorkizunik atseginena opa dizugu. Hurrengorarte.

H E R R I K R O N I K A K

Ageri den bezala TXIRRITXOLA-ren ale honetan orrialde berri bat zabaldu nahian gabiltza. Berton, herriko taldeen ekintzak nondik nora dabiltzan jakineraztea da. Bizi garen garaian, gizakia gero eta gehiago bakarkako konpetitibitatean sartzen dabiltzan neurrian, orrialde honetatik taldeka edo elkar-lanean dabiltzanen lana goratu nahi genuke.

Eta inori hutsik egiteko asmorik gabe, uda hontan bizitakoari buruz gatozkizue:

1) BAKIOKO ASTE MUSIKALAK merezi du agur bero bat, jende batengan sortzen dagoen arrakastagatik eta musika munduari dagokionean idazten dagoen istoriagatik. Txalogarria beraz antolatzaileen kemena eta ardura.

2) B e r e z i k i aipagarriak baita ere BAKIOKO ITXAS-ALDE DANTZA TALDEAREN udako ekitaldiak, ez bakarrik Bakion bertan eta Bakioko ume eta gazteekin lortutako fruituak eskeintzeagatik, baizik eta beste herrialde batzuetako folklorea ekartzeagatik.



3) Frontoiak eta bere inguruan ahalegindu diren pertsonak, ALAITASUNA PILOTA TALDEAREN eskutik, lortu

dute behin eta berriz gure herria pilota usainez betetzea eta denontzat uda atseginago bat lortzea.

6) Eta uda usainak alde batera utziz, berriro ere lanera. Denontzat gogorra adin txikienekoentzat izan ezik. Hauek pozik bueltatu dira heuren eskolara, HERRIKO ESKOLARA. Eta hemen jarri behar ditugu

4) Uda honetan, gure hain famatua den txakoliña dela eta, GETARIA eta BAKION ARTEKO ANAITASUNA ere ospatu dugu. Ekintza honek badarama bere atzean esperientzi eta lan ugari eta aurrerantzean Herri berezi bat bezala agertuko gaitu. Aurrera ba gureak diren fruituekin!

5) Urtero bezala HERRIKO JAIK ere bizi izan ditugu. Betiko leloa? Aurtengo eritziak "ez da egon inor" eta horrelakoak izan dira. Dena den, bai Udalak eta bai herriko taldeek galdera bat egin beharra daukagu: ¿ez diegu denon artean jaiari bira bat eman behar? Gogorik ez da falta, bestela hor ditugu txoznetako lana, mozoetako imaginazioa etabar "nahi" horren ezaugarri bezala.

gure itxaropenak, denon artean gero eta gogotsuago eskola zainduz eta indartuz, hau baita gure GEROA. Heldu askok esaten dutenez "eskola gabeko herria, herri hila da".

Oraingoz Mungialdeko HERRIAK aurkezten dizkizuegu orrialde honetan.

Mungialdea URIBE KOSTA eskualdearen barruan kokatuta dago.

Azpian datozkizue Mungialdeko herrien hedadura eta bizilagunak.

Aurrerago beste hainbat hauzo garrantzitsuren berri emango dizuegu.

Helburua gure alboko herrien berri izatea dugu.



MUNGIALDEA

HERRIA	HEDADURA (Km ²)	BIZILAGUNAK
Arrieta	14,46	432
Bakio	16,12	1.299
Fruniz	5,86	319
Gatika	17,77	961
Gamiz-Fika	15,84	948
Laukiz	8,15	968
Jatabe-Maruri	15,82	557
Mungia	52,12	12.631
Meñaka	12,84	440

JAIK: GAUEZ EDO EGUNEZ, GAZTEENTZAKO EDO ZAHARRENTZAKO?

EGUNEZ:

Lehenengo esan behar dot ni ez nagoela gauez egiten den jaien kontra, nik uste dot jaiak bai egunez bai gauez denontzat izan behar dirala, herri bakoitzaren ohiturak galdu barik. Hori argi utzita, nire uztez Bakion ia dena galtzen goaz batez ere egunezko jaia. Adibidez umeen jaia aurten lotzagarria izan da ez dakit zelan ipini daberen programa barruan. Guretzat, nagusietzat, ez da egon ezer; kanpotar bat etortzen bada ez da konturatzen Bakio jaietan dagoela. Goizez egiten zen jaia ere galdu da batez ere 30an ospatzen zena. Gainera egon diren festejo apurrak bakoitza herriko punte baten izan dira. Ez algara konturatzen herriko giroa galtzen gaudela edo kanpotarrak postuten baino ez gara alegintzen?



GAUEZ:

Jaiak egun osoan ospatzen badira ere, gauez atseginago ditut. Gauez jai giroa nabarmenagoa da; ia sinestezina da hainbat jende herri batean batzea erromerian. Ordu honetan jende gaztea dabil gehienbat, nagusiren bat ikusten bada ere. Nagusiek eguneko ekintzetan parte hartzen dute, baina gauez ia gehinak desagertu egiten dira gauerdirako. Hamabietatik aurrera "gazte jaia" hasten dela dirudi; nagusiak badatoz ez dute ezer aldatuko, dena berdin izango da, eta parte hartzen badute, azkoz hobeto, noski. Badaude egunez jai onak ere, baina honek gutxi dira; gaineraorain gehienak egunez jarriko balira ere, gazteok gauez ere irtengo ginatke.

M^a KARMEN GARMENDIA, MUNGIAN

Joan dan Ekainaren azkenean, eta "MUNGIA EUSKALDUNDUZ" taldeak eraginda, batzar zabal bat gauzatu zen Torrebilela Kultur etxean, Mungian Euskarak erakusten dauen osasun faltari konpon bideak aztertu eta aurkitu guran.

Batzarrera Mungialdeko alderdi ezberdinetako zinegotzi eta ordezkariak azaldu ziren; J.A. Torrontegi senadorea, Jone Goirizelaia diputatua, Xabier Goirigolzarri, Txema Montero etab... haien artean, eta Euskararen arloan beharrean dabiltzan erakundeen ordezkariak; Larramendi Ikastola, Legarda Ikastetxea, Mungia Euskaldunduz eta Uribe-Butroeko aek-ren ordezkariak bertan izan ziren. Goian aipatu bezala, hizkuntz politikarako idazkaritzaren zuzendari den M^a Karmen Garmendia eta I. Zeberio etorri ziren ahalegina lagundu eta bultzatzeko asmoz. Eztabaida luze joan zen eta sakonduz adostasunera heldu ginen puntu geihenetan, hauxetan hagusiki:

- Mungialdean; Mungian bereziki, Euskarak ez dauka presentziarik kalean; hau da, erderak hartu du bere lekua.

- Famili-arteko transmisioa, hau da, gurasoengandik seme-alabenganakoa, apurtuz doa kasu askotan.

- Euskararen ospea berreskuratzeko nahi ta nahiezkoa da Udaletxearen parte hartze zuzena ahalegin horretan; orain arte oso pobrea izanik bertan izan ginen ia guztien ustez.

- Euskara aurrera atara gura badogu, lan bateratsua egin beharko da, alderdikeriak baztertuz; ostantzean jai dogu.

Bertan komisio iraunkor bat eratu zen, jadanik hasita pausuak emoten hasteko. Arin beharko dau izan.

EUSKARAK MEREZI DU!

Opor laburrak amaituta ikasturte barriari ekin beharko jako gogoz, eta aurten ere Bakion bertan aritzeko aukera eskeintzen dautsuegu.

Inoiz ere ez da belu Euskara ikasten hasteko eta hortaz, bereziki animatu gura zaituegu oraindino Euskaraz irakurtzen -leiduten- eta idazten ez dakizuenoi.

Euskal kultura bizi-bizirik dago eta aukera ugari eskeintzen dautsuz; Euskal Telebista eta irratiak, Egunkaria, Aldizkari eta Komikiak, punta-puntako idazleak eta musikariak, Bertsolaritzaren mundua, antzerkia,... eta eguneroko harremanetarako euskara bizia.

Guzti hori zeure ondoan daukazu, inguruan, murgil zaitetz lehen bait lehen eta ez galdu aukerarik.

EUSKALDUN IZATEAK MEREZI DU!

ESKOLAN EUSKAL EREDUAK GORUNTZ

Etorkizuna Euskararena delako eta geroa gaur hasten delako gero eta guraso gehiagok D ereduari - Euskal ereduari- matrikulatzen dabez umeak.

Erdal ereduak -A ereduari alegia- behera dago etengabe; B ereduak ere beherantzko joera dauka azken ikasturteotan, ez bait du segurtatzen euskalduntze osoa.

Buesaren haserretarako, "D" ereduari da bere sorreratik etengabe gora egin dudan bakarra.

EUSKERA

HOBEAN,

HOBE

Txirritxolaren azken alean hasitako atalagaz jarraituz, hona hemen geure hizkera txukuntzeko apunte labur batzu.

Oraingoan azken urteotan ete batezbe gazte eta umeen artean zabalduz doan erderakada bat aztertzeraz goaz; Artez-arteaz ¡SI YO NO HE SIDO!; ¡SI NO VINISTE!... eta antzekoak Euskarara itzultzean sortzen dena. Honela, gero eta sarriago entzun ahal izaten dira ondoko esakuneak edota antzekoak:

OKER

ZUZEN

NI EZ BANAIZ IZAN!

EZ NAIZ NI IZAN ETA!

EZ BAZINEN ETORRI!

EZ ZINEN ETORRI ETA!

EZ BADAUKAGU DIRURIK!


DIRURIK EZ DAUKAGU ETA!

EZ BADAUKAT ASTIRIK!

ASTIRIK EZ DAUKAT ETA!

BERAZ ERABILI DAIGUN BA -DELAKOA DAGOKIONETAN- BALDINTZAN, ZALANTZA ADIERAZTEKO; etab... -... BALDIN ETA BADAUKIGU BEHINTZAT.

Ikasleen %62 eredu euskaldun eta elebidunetan dabil EAEko hizkuntza ereduaren bilakaera



BERTSO - AFARIA BAKION

Iragan hilebetean, abuztuaren 25ean hain zuzen, Bertso-afaria ospatu genduan Longarai Tabernan; eta bertara 40 bat lagun abiatu gintzazan, Mirari Azula, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak ikus eta entzutera. Bapo afaldu ostean polito kantatu eben hirurek eta giro ederrean igaro gendun gaua.

Iturria: Hazkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

LEHIAKETA MUNDIALA

"MUSIKA"

- 1.- Zenbat urte zeukan Arriagak bere opera "Nada y mucho" idatzi zuenean?
- 2.- Iparragirreraren "Gernikako arbola" ezagutzen dozue, baina nork idatzi zuen kanta horren hitza?
- 3.- Euskalerrian baditugu hainbat soinulari ta abeslari famatuak, hauetatik bat itsua da. Nori buruz hitz egiten ari gara? Badakizu beran bi kantuen izenburuak?
- 4.- Nola deitzen da Txomin Artolarekin azken bolada honetan abestu duen emakumea?
- 5.- Aipatu ezazu Gabonetako bi abestien izenburuak.
- 6.- Nork abesten du "Itxaropena" kanta?
- 7.- Zein taldeko kidea zen Txufu?
- 8.- Nortzu dira Negu Gorriak taldeko kideak?
- 9.- Zein taldeak argitaratu du bere azken diska umeei eskeinita? Nola du izena diska honek?
- 10.- Amaitzeko gure herriko rock-talderik famatuena, Galipot. Nola deitzen zen bere lehen kanta?



HITZAK ASMATZEN

ZALDI GAZTEA EDO GARAIERA TXIKIKOA

1.

LAGUNA EZ DENA

2.

SASIAREN FRUTUA

3.

BEHIAK EMATEN DUENA

4.

GILTZAPETUAREN AURKAKOA

5.

PREMIOA

6.

LEHENAREN AURKAKOA

7.

ZUHAITZETIK ATERATZEN DEN MATERIALA

8. ANIMALIEN
HIZKI ZALDA

T	B	C	F	Y	K	N	X	A
A	X	D	G	H	Q	C	A	H
L	M	A	R	I	J	O	Z	U
T	G	E	K	X	S	L	K	N
X	K	L	T	U	G	C	O	T
E	O	A	L	J	R	M	I	Z
R	H	B	F	I	Z	R	C	A
R	C	K	A	R	D	I	A	J
I	F	G	Z	A	Q	U	B	Y
A	Z	H	B	F	K	O	X	Z
E	L	E	F	A	N	T	E	A
I	J	K	L	O	P	C	B	T

GUZTIRA 8 ANIMALIA DAUDE. BILATU ITZAZU!